

EIZIEk, 30 urte

Egokitzapena: KARLOS DEL OLMO

Grabazioa eta transkripzioa: ANARTZ BILBAO

Hona hemen transkripzio egokitu bat, elkartearen 30. urteurrena ospatzeko asmoz EIZIEk antolaturiko omenaldiko esanak biltzen dituena. Ahozko-tik ahalik eta hurbilen utzi ditugu ekitaldiko hitzak, hara bildutakoek izan zituzten zirrarak eta bizi izan zuten giroa jaso guran. 2017ko abenduaren 15ean, Donostiako Egia Kultur Etxean, elkartearen sortzaileak omentzera batu ziren lehengo eta oraingo hamaika bazkide eta lagun. Elkartearen sorreraren berri eman zuten bazkide sortzaile Lurdes Auzmendik, Xabier Mendiguren Bereziartuk eta Josu Zabaletak. Gainera, Miren Ibarluzea eta Bego Montorio ere izan ziren saioan, nor bere bizipenak partekatzen, Miren bere tesia abiaburu hartuta eta Bego elkartean izan duen esperientzia oparoa kontatuz. Karlos del Olmo arduratu zen solasaldia gidatzeaz.

Karlos del Olmo:

Hemen zaudeten gehienok ondo ezagutzen dituzue nire ondoan diren lagun hauek: Lurdes Auzmendi, Xabier Mendiguren, Josu Zabaleta, Miren Ibarluzea eta Bego Montorio. Denak kideak, asmokideak, bidaideak eta beste hainbat gauza direla esan daiteke. Niri tokatu zait aurkezpenak egitea, besteak beste, azkenengo urteetan *Senez* aldizkariar arduratu naizenez gero, elkarteak hala erabaki duelako.

Ni ez naiz, hortaz, gaur eta hemen, protagonista, baina kontatuko dizuet nik nola ezagutu ditudan hauek guztiak, azken batean, denekin izan dudalako oso harreman berezia.

Duela nik nahi baino urte gehiago, irakasle jardun nuen Muskizeko ikastolan, ia-ia Kantabriako mugan; eta, hala ere, gogoan daukat, esaterako, gugana etortzen zirela euskaldun ospetsuak, bertsolariak-eta, umeeekin bertsogintza eta abar lantzera. Eta harrituta egoten ziren, Kantabriako muga-

mugan lortzen genuelako umetxoek euskaraz egitea. Gogoratzen dut oso ikastola txikia zela, eta irakasleak hezkuntzako berrikuntza mugimendu berri horien inguruan ibiltzen ginela garai hartan, geure burua zelán jantzi asmatu guran... Nik daukadan lehenengo oroitzapena da testu batzuk banatzen genituela eta nik han ezagutu nuela *Senez* aldizkaria, eta, guretzat, esaterako, irakaskuntzan eta ume txikiekin egonda ere, *Senez* izaten zela beti jakinduria iturrietako bat. Eta horri esker ezagutu nuen elkarteare. Niretzat, Muskiztik eta Barakaldotik ikusita, herrialde mitiko bat zen hura; elkartearen inguruko gauzak eta aldizkariaren ingurukoak beste mundu bat ziren, guk bizi genuen errealitatearekin zerikusi txikia zuena. Hortik, gero, euskalategi batean ere jardun nuen irakasle, eta, han, *Senezek* askoz ere erabilera handiagoa izaten zuen, baina ikasmaterial moduan: ikasleentzako gauzak prestatzeko, hemen zaudetenetako batzuek idatzitako artikulua erabiltzen genituen.

Eta, gutako batzuentzat, itzultzaileek egiten zituzten testuak eta lanak Olinpo moduko batean zegoen jendeak egiten zituen. Eta izen horietako batzuk, guretzat, mitikoak ziren. Gero, itzulpen masterra egin nuen, EHUUn lehenengoz antolatua, itzulpen juridiko administratiboari buruzkoa; eta, han ere, hemen dauden hauek izan nituen irakasle, eta hor behean zaudeten beste batzuk ere nire irakasleak izan zineten. Hor hasi nintzen ni itzulpengintzan trebatzen.

Handik, Donostiako Udalera etorri, eta plaza atera nuen. Ondo gogoratzen dut behin kabinan egon nintzela Lurdeseekin, zeren kabinakide izan nituen bai Lurdes, bai Xabier, eta bai Bego; handik atera, eta

Lurdeseek esan zidan taberna batera zerbait hartzera joateko. Trago bat jotzen ari garela, Lurdeseek esan dit: «Ez zenuke bazkide izan nahiko elkarteare?». Eta nik: «Bai, bueno, bai...». Eta, baiezkoa emanda, bigarrena etorri zen: «Eta, bide batez, Administrazio Taldearen ardura hartuko duzu?». Eta nik: «Bai, hartu egingo dut». Eta hala sartu nintzen elkartera, eta, harrezkero, han ibili naiz, lardaskatzen eta endredatzen. Han ezagutu zaituztet zuetako batzuk, lehen esan dudán moduan irakasle izan zaituztedalako, eta beste batzuk, elkarteare izan ditudan arduratxo horietan lankide izan zaretelako edo beste eginkizun edo kargu batzuk izan dituzuelako.

Lehen esan dudán moduan, niretzat bereiz samar zegoen gauza bat zen, Bizkaitik urrun samar ikusten zen gauza bat, bai elkarteare, bai *Senez* aldizkaria. Gaur egun, hori aldatu da, elkarteak berak egindako lanari esker urteko Batzar Nagusia izaten delako herrialde herrialde, eta lortu duelako neurri batean harreman sare hori zabaltzea, beti go-goan izanda gure lanbidea txikia dela, elkarte txiki eta xumea garela eta garena baino ez garela, baina garen hori nahiko handia dela, ikusita euskalgintzan eta normalizazioaren bidean gaur arte zer pauso eman ditugun.

Alegia, azaldu nahi izan dut nola ikusten duen elkarteare gaur egun jende askok oraindik ere. Hau da, itzulpengintzan ez dabilenari oso modu idealizatuan heltzen zaio elkartearen oihartzuna, edo, idealizatu ez bada, ezagutza maila handirik ez du jendeak EIZIEn moduko elkarte batek egiten duenaz. Ez garelako, esaterako, Idazleen Elkarteare dena; beste erakunde mota bat gurea; ez gara kolegiu bat; ez gara sindikatu bat...

Baina guztietatik daukagu zer edo zer. Gero, gainera, gure elkartean badira itzultzaile autonomoak eta badira itzulpen enpresen jabeak ere, eta oso harreman berezia sortzen da: denak lagunak eta berdinak gara zenbait gauzatan, baina, gero, gure lehendakariak aurtengo (2017ko) *Senezeko* elkarrizketan esan bezala, klase borroka txiki batzuk ere sortzen dira, edo kontraesanak. Baina, kontraesanak gorabehera, badugu lotura bat, eta lotura hori itzulpengintza da.

Saio hau planteatu genuenean, neurri batean, akordura ekarri nahi genuen 30 urte joan direla, eta azaldu nolakoa zen egoera elkartearen sortu zen garaian. Eta horregatik deitu diegu sortzaile izan ziren lagun hauei, lankide hauei, batzuek behintzat elkartearen sortzeko paperak sinatu zituztelako. Pentsatuta ere zein zen euskararen egoera, zein zen itzulpen ikasketen eta irakaskuntzaren egoera, Martuteneko Eskola ospetsua –hura ere mitiko samar sentitzen zen garai hartan–, eta gero nola bilakatu den hori guztia, nola sortu diren irakaskuntza ofiziala, masterrak, lizentziak, graduak. Horietan guztietan, pertsona berak egon dira beti; azken batean, hori eduki ditugu sortzaile izan zirenetako batzuk.

Eta nire aldetik, besterik ez. Nahi baduzue, has zaitezket, bestelakorik gabe.

Xabier Mendiguren:

Ni ez nintzen mitikoki hasi. Ni Algotatik zuzenean etorri nintzen Donostiara, itzultzaile eskola bat sortzera. Juan San Martinek deitu, eta esan zidan: «Laster, egundoko itzulpengintza sortuko da gure artean. Jende asko beharko da, prestatua, gauzak egi-

teko. Eskola bat sortu behar da». Eta zera esan nion: «Nik itzultzen zerbait badakit, baina eskola bat egitea beste kontu bat da». Eta berak: «Bueno, bilatuko duzu modua». Francoren agintaldiaren bukaera zen, eta beste erregimen bat sortuko zen.

Eta, orduan, egin genuen beti egiten dena: dakitenei galdetu, eta Europako eta Ameriketako eskola nagusiei gutun bat bidali, galdetuz zer programa zituzten eta nola antolatzen zituzten beren irakaskuntzak. Eta askok erantzun zuten, eta azaldu nola egiten zituzten programak eta abar, eta hori, jada, bide bat zen, abiapuntu bat. Baina ez zen nahikoa: dirua behar zen antolaketa bat egiteko. Orduan, irakasle bila hasi nintzen: Zabaleta anaiak (Pello eta Josu), Koro Navarro, Linda bat, ingelesa irakasten zuena... soka bat. Baina kontua zen dirua behar zela hori dena egin ahal izateko, eta Juan San Martinek esan zidan: «Lasai, hasieran, behintzat, konponduko dugu».

Cegasak eman zuen dirua, Zelaiak eta Galdosek. Diru horrekin ordaindu ziren lehenengo soldatak eta behar ziren gauzak. Lehenengo, Miramoneko dorreetako batean abiatu ginen, Arbide dorreetan, eta, gero, hurrengoak etorri ziren: Martuteneko Eskola famatua. Diru laguntza horri esker eta Juan San Martinen eskaerari esker abiatu ginen gauzak egiten.

Elkarrekin bildu, eta bakoitzak alor bat hartzen zuen. Josu Zabaletak bazeukan eskarmentua gauza askotan ordurako, argitalerietan zebilen, eta, gainera, garai hartan ordenagailua sortu zen, eta horrek ere panorama zeharo aldatu zuen. Josu horretan maisu handia izan zen niretzat, eta asko zor diot. Berak esan zidan. «Garesti samarra da,

baina ez zara damutuko erosten baduzu». Eta egia da: erosi nuen, eta ez naiz damutu. Bizitza aldatu zidan. Haiei esker hasi ginen lanean. Orduan, lehenengo, esker on handi bat zor diegu Juan San Martini eta haren familiari, lehen pauso hori eman zutelako.

Josu Zabaleta:

Astebete edo izango da elkartera joan eta Idazleen Elkartean ikusi nuela San Martinen semea, eta horixe esan nion, zenbat gauzatan izan den Juan San Martin bultzatzailea, ez gurean bakarrik. Eta berak esan zidan: «Nik buruan daukadana da, askotan, etxean, gure aita egoten zela ea hogeitaz urte barru gauzak nondik joango ziren; horren bila, eta horri begira». Eta uste dut hori zor zaiola, eta aitortu behar zaiola gauza askotan. Uste dut Idazleen Elkartearen atzean eta barruan ere neurri handi batean bera egon zela.

Elkartea eta eskola bezala, *Senez* ere kopiatuz sortu da. Hasieran, *Quaderns de Traduccióren* kopia fidela zen. Elkartearen estatutuak galegoen estatutuetatik kopiatuta daude; puntu bat bakarrik aldatu zen, eta uste dut oso ondo asmatu genuela: zuzendaritzan, bi aldiz bakarrik egon zaitezke. Eta horregatik pasatu da hainbeste jende eta horregatik ezagutzen du hainbeste jendek elkartea barrutik, tripetatik. Eta hori elkartearen aberastasun bat da, nire iritzian.

Itzultzaile Eskolaren hasieraz hitz egin behar baldin badut, konturatuta nengoen ordurako nekienarekin ezin nuela itzuli. Batez ere haur literatura hasi ginen itzultzen, eta proiektuak egiten. Bati, esate baterako, eskatu nion liburu bat, eta itzuli zidan Telefonikako listina itzul daitekeen bezala, ho-

rrelako gauza lehor bat... Eta esan nion ez zuela hala itzuli behar.

Beste irizpide bat zen ez nekiela itzultzeko lain, eta klasikoak behar nituela. Arantzazuko garaietan, bazen euskaraz hitz egiten nahiko kaskarra eta idazten oso ona zen bat: Villasante. Eta nire artean esaten nuen: «Horrek zer egiten dik horrela idazteko eta hain gaizki hitz egiteko?». Eta ikusten nuen egun osoa pasatzen zuela klasikoekin. Klasikoak gora eta klasikoak behera; Axular ez baldin bazen, Duhalde izango zen, edo besteren bat. Eta esan nuen: «Horixe bera egingo diat». Eta, orduan, euskal idazle zaharren liburuak fotokopiatzen hasi nintzen, eta liburu mordoxka bat egin nuen. Eta hortik atera zen Hordago argitaletxeko Klasikoak bilduma, esate baterako, fotokopia horietatik. Baina bidea hori zen, eta horregatik hasi nintzen klasikoekin, nik uste.

Lurdes Auzmendi:

Baten batek egin behar zuen irakasle lana, baina ikasleak ere behar zituzten, eta ni izan nintzen horietako bat. Arbidetara hasi genituen eskolak. Eta gogoratzen naiz batez besteko adina 25 urte izango zela, gutxienez. Martutenen bukatu, eta urte haietan benetan asko ikasi nuen. Irakasleak probatzen ibiltzen ziren askotan; hasten ari ginen, eta, beharrak non zeuden eta haiei nola erantzun ere han bertan aztertzen genuen.

Ikasketak bukatu, eta Xabier Mendigurenek eta Josu Zabaletak egun batean esan zidaten: «Aizan, itzultzaileen elkarte bat sortu behar dinagu». Zeren gero eta ikasle gehiago ari ginen irtetzen ikasketak eginda, eta gero eta itzultzaile postu gehiago ari zen sortzen

Administrazioan eta beste hainbat alorretan. Itzultzaileen elkarteak sortu behar zen.

Eta jende asko pasatu da urte luze haue-
tan zuzendaritzako karguetatik; bi arrazoi
daude hori esplikatzen dutenak: bata, epeak;
alegia, bi agintaldi baino gehiagotan ezin
zela egon, eta beste printzipioa zen norbai-
tek ateratzen bazuen onuraren bat elkartetik
nolabait itzuli behar ziola elkarteari onura
hori, zuzendaritzan lanen batzuk eginez.

Eta lehen batzar nagusia larunbat batean
egin zen, EUTGn; ostiral arratsaldean, Josu
Zabaletaren etxean ari ginen oraindik gale-
gotik euskarara itzultzen estatutuak, artiku-
luen ordenak aldatzen, ATG jartzen zuen
lekuan EIZIE jartzen. Eta nik gogoan dut
60-70 bat itzultzaile bildu ginela lehenengo
batzarrean, sorrerako batzarrean.

Dena den, batzar haren aurretik, bilera
batzuk egin genituen, Gipuzkoako Foru
Aldundian, Iratzeder, Haritxelar, Juan
San Martin, Juan Mari Lekuona, Eustasio
[Etxezarreta]... Aldundian, babes pixka
bat eman ziguten elkarteak formalki sortze-
ko. Eta, orduan, ni izan nintzen lehenengo
idazkari teknikoa.

Nire borroka izan zen lehenengo ema-
kume bazkidea izatea; zenbakiz, behintzat.
Lehenengo 25ak gizonak ziren, eta neuk
daukat 26. zenbakia duen karneta.

Josu Zabaleta:

Gogoan ditut lehenengo zuzendaritza ba-
tzordearen bilerak, Euskaltzaindian egiten
genituenak: Juan San Martin, beti prest,
hurbil; Juan Mari Lekuona, lan pila bat egin
zuen hasierako urte haietan... Lehenengo
egoitza Martuteneko Itzultzaile Eskolan ber-

tan genuen. Han joan ginen fitzategiak-eta
osatzen, eta handik jada ikusi genuena izan
zen itzultzaileen elkarteak berez ezin zuela
eduki nahiko pisu bere kabuz estruktura
handi bat edukitzeko, antzeko beste elkar-
teetara hurbildu behar genuela, nolabait,
eta, segituan, juntatu ginen Idazleen Elkar-
tearekin, gero Editoreen Elkartarekin, eta
gaur arte. Etxague Jeneralaren kalea, Zu-
rriola etorbidea, eta gaur egungo tokia.

Nik, nolana ere, gogoeta bat egin nahi
nuke eskola eta elkarteak lotzeko, funtzio-
natzeko moduari buruz. Gu Martuteneko
Eskolan hasi ginenean, ikasle mordoxka bat
zegoen sekulako eskarmentua zuena, eta
eskola baino gehiago izaten zen eztabaida;
nire esperientzian, behintzat. Eztabaida eta
elkarrengandik ikastea, bakoitzaren espe-
rientzia jartzea... Hori izan zen guretzako
ikasteko modu bat.

Eta elkarteak ere, azkenean, horrela sortu
zen. Eta horrela funtzionatu du, eta fun-
tzionatzen du oraindik, zeren era askotako
jendea bildu da, eta era askotako ekarpenak
egin dira. Bietan dago antzeko modu bat
funtzionatzekoa: bakoitzak bere esperien-
tziatik ekarri. Nik hori nabarmendu nahi
nuen.

Xabier Mendiguren:

Bai, nik ere ikusi nuen hori, eta zin egin de-
zaket horrela dela, nolabait esateko.

Aipatu nahi nuke, historia osatzeko,
Espainiako APETIrekin hartu-eman in-
portante bat ere izan genuela: Asociación
Profesional Española de Traductores e
Intérpretes. Hango bileretan, gauza askori
buruz hitz egiten zen, eta informazioa ema-

ten ziguten, pertsona interesgarriak ezagutu nituen. Katalan batzuekin ere hartu-emanan izan genuen; estatu mailan zeuden elkarte guztiekin izan genuen nolabaiteko hartu-eman, eta haien ideiak eta haien gauzak ere eskuetaratu genituen. Orduan, garai hartan egin genuen hartu-eman hori interesgarria gertatu zen gauza askotarako.

Eta, gainerakoan, eskolako funtzionamendua Josu Zabaletak esan duen bezalakoa izan zen: beti kontrasteak eginez, probak eginez, ariketa bidez, eta abar. Eta gogoan daukat nola Josuk egin zuen material bat, aipatu dituen klasiko, antzinako liburu horietatik eta abar, itzulpena eta jatorrizkoa elkarren parean jarrita. Eta horrelako materiala oso egoki gertatu zen; argitalpen labur batzuk egin genituen, eta, tarteka, ikusten dira oraindik ere ale batzuk.

Itzultzaile Eskolarekin parez pare, Telebista Eskola ere sortu zen, eta goizean lan egiten genuen Itzultzaile Eskolan, eta, arratsaldean, Telebista Eskolan; Telebista Eskolan itzulpenak egiten ziren, filmen itzulpenak. Ez zen liburuak bezala itzultzea, baizik eta esan egin behar ziren testuak; egokitzapena egin behar zen luze-labur baten arabera, eta abar. Hori ere beste mundu berri bat izan zen, aurretik ez zegoena, eta horrek osatu egin zuen literatura eta testu pragmatikoak edo Administrazioak eta abar ere egitea.

Beraz, bat-batean, halako boom moduko bat geratu zen, premia berriak, eginbehar berriak eta horren aurrean esperientzia berriak, eta hori ere parean gertatu zen. Beraz, horrek ere, uste dut, eman zigula ikuspegi berri asko ondo lan egiteko.

Josu Zabaleta:

Uste dut bi anekdotak esplikatu dezaketela pixka bat zein izan zen prozesua. Nik, gehienbat, euskarazko literatura klasikoa ematen nuen, eta ezagutzen zuen jendeak giro hori. Gauzak aldatuz zihozela konturatu nintzen behin: testu bat zuzentzen ari ginen klasean, eta hara non aurkitzen dudana konfesionaren parteak zeintzuk ziren ez zekien ikasle bat.

Eta hau da beste anekdota: Espainian, filologiako ikastaroak edo karrerak ikasleek husten hasi ziren, eta hamahiru fakultate sortu ziren, orduan, itzulpenekoak. Eta bat, akordatzen naiz, Valentzian. Garai hartan, neu nintzen *Senez*en zuzendaria, eta han presentatu nintzen jardunaldi batzuetan, azaltzeko nola argitaratzen genuen aldizkari bat. Azkenengo eguna iritsi zen, eta despedidako saioa Julio Cesar Santoyok egin behar zuen. Beraren saioa zen zer zegoen itzulpenari buruz, Espainian zer egiten zen, eta hara non esaten duen: *«Aquí están los dos que más publican sobre traducción en España; no sabemos lo que dicen, porque solo ponen un resumen en español y en inglés, pero bueno, son los que más escriben. A ver, que se levanten...»*. Ze mundutan bizi ginen!

Ari zen zabaltzen itzulpenaren mundua Espainian, baina premiak guk genituen. Eta, beste bilera batean, Ladmiraleari frantsesak esan zigun: *«Zer suertea duzuen, laborategi batean bizi zarete zuek!»*. *«Bai, baina gero, paganoa, norik pagatua, zuek duzue!»*. Halakoa zen mundu hori, eta halakoa zen bagenuelako ikasle talde bat esperientzia zuena, eta han ezin zenuen tontakeriarik esan.

Xabier Mendiguren:

Gero, garai hartan, pixka bat lehenago, ikastaro bat egin zen, Arantzazun; eliza ebanjelikokoak etorri ziren Biblia itzultzera hona, eta nahi zuten Biblia euskara batura itzuli, eta talde bat sortu zen. Bi irakasle ekarri zituzten, Mendoza jauna eta Hans Peter Rüger alemana, Arantzazun kuadrilla bat bildu eta zenbait egunetan ikastaro bat emateko: nola itzuli behar ziren Bibliako hainbat pasarte eta... Nik suertea izan nuen; parte hartu nuen bilera horietan, eta ikusi nuen garai hartan erabiltzen zituzten teoriak zirela gero Donostian bertan ezagutu nuen Eugene E. Nida izeneko itzulpen teorialari ospetsu eta mundu mailan ezaguna zen batenak. Nik ikusia nuen haren izena Euskaltzaindiko aldizkari batzuetan eta errusierazko beste batzuetan, eta artikulu batzuk itzuli nituen, eta han agertzen zen. Beste bi liburu mitiko ere izan ziren hasieran erosi genituenak, horrelako bibliografiak pixka bat lagunduta.

Beraz, nazioarte mailan erabiltzen zen bibliografia oinarritzkoa ezagutzera iritsi ginen berehalaxe, horrelako informazio batzuk eskura genituelako, Euskaltzaindiko aldizkari horiek eta abar. Eta nik uste dut oso epe laburrean jarri ginela teoria orokorren jakitun. Bai alemanez agertzen zirenak, bai errusieraz, ingelesez, Estatu Batuetan, Bibliaren ingurukoak eta informazio horiek denak. Ez genuen bakarrik praktika; teorikoki ere bagenituen informazioak, eta, artikulu batzuetan, hori *Senezen* ikusten da, nahiko hornituta geunden, eta jada terminologia bat menderatzen genuen, eta abar.

Eta Vinay eta Darbelneten liburu mitiko hura ere beguenen, frantsesaren eta ingelesaren konparazio sistematikoa egiten zuena; hori ere guretzat zen sekulako liburua. Ba, horrelako liburuak hartu, eta konparazioak egiten genituen; asko ikasi genuen momentu horretan, nazioarteko itzultzaileekin. Gero, Nida Donostiara etorri zen egun batean, eta agurtu genuen, eta esan genion zenbat miresten genuen beraren lana. Nidak bere esperientzia atera zuen munduan zehar egiten ziren Bibliaren itzulpenetatik. Eta hori egiteko zein arazo gairatzen zituen eta nola. Beraz, ez geunden praktika soil batean; teorizazio baten oinarri bat ere jaso genuen, eta erabiltzen genuen.

Lurdes Auzmendi:

Ez hori bakarrik. Oso azkar jarri ginen harremanetan nazioarteko, Europako beste hainbat eta hainbat itzultzaile elkarterekin ere, eta hortik dator EIZIE Itzultzaileen Nazioarteko Federazioan sartzea, besteak beste. Eta horren harira antolatu izan genuen uda ikastaroren bat, poesia itzultzaile ospetsuak ekarriz eta abar; oso aurrerakoiak izan ginela esango nuke, ez ginen gelditu gure txokoa bertan goxo, baizik alderantziz, joan behar baldin bagenuen hiru egunetan bidaia bat egitera Parisera eta Bruselara hango elkarrekin hitz egitera, babesa eman ziezaguten ez dakit zertan, hor joaten ginen. Ikusten zen egin behar zela, behar genuela... Eten-gabe irakiten zegoen elkartea.

Josu Zabaleta:

Nik horretaz askotan pentsatu izan dut. Eta ez dakit zuzen edo oker nagoen, baina... zein erraz gertatzen zitzaigun beste batzuekin harremanak izatea. Nik uste dut momentu horretan Europar elkarte pila bat zegoela gure antzeko problemekin, haiek ere premiak zituztela. Eta juntatzen ziren premiak eta premiak. Eta nik orduan ikasi nuen, esate baterako, sekulako kapitala dela premia bat, problema bat, nahiko ondo planteatuta eta definituta edukitzea. Zeren guk ez genuen ezeren soluziorik ematen; guk presentatzen genituen gure problemak. Eta, azkenean, mekanismo horrek eskolan ere berdin-berdin funtzionatzen zuen. Juntatzen ginen irakasle eta ikasle, mahai baten inguruan denok, eta bataren problemak soluzionatzen zuen bestearena.

Eta elkarteen artean ere horrelako zer-bait gertatu zen, zeren bestela ez da oso erraz entenditzen zein harreman erraza izan genuen bai Espainiako bai kanpoko elkar-teekin. Mekanismo horrek funtzionatu du elkar-teak ere pixka bat horrela funtzionatu duelako: denok ikasi dugu denongandik.

Karlos del Olmo:

Horrek azalduko du, seguru asko, gaur egun ItzuL posta zerrendak duen arrakasta, neurri batean gauza bera delako. Eta, parte batean, hori ere bada jarraipen halako bat. Bestalde, *Senez*en lehenengo aleetan aipatzen zen terminologiaren eta itzulpengintzaren inguruko arazoak jorrazteko aldizkari bat zela. Gero, egon zen aldaketa bat, seguru asko, elkar-tea sortzearekin batera, elkar-tean itzul-

tzaileak, interpreteak eta zuzentzaileak ere bazirelako, eta, gainera, punta-puntakoak izan gara, neurri handi batean, teknologia-ren aldetik. Hori ere beti ikusi da aldizkarian, eta elkar-teak antolatu dituen ikastarotan eta bestelako prestakuntzan. Gogoratzen duzue nola joan zen bilakatzen parte hori, eskolatik elkar-terera eta elkar-tearen zabaltze moduko hori?

Xabier Mendiguren:

Ez ahaztu interpretatze lana ere sortu zela. Euskal Herrian, premia sortu zen: ordura arte ez bezala, hitzaldiak ematen hasi ziren, kongresuak eta horrelako gauzak, eta ez zegoen jenderik prestaturik.

Beraz, itzulpen idatzizkoaz gainera, interprete lanak egiten ere hasi ginen, ausardia handiarekin, eta ikasten, kabinetan, leku batean eta bestean. Denetarik egiten genuen: Iberdrolaren urteko bilera euskarara pasatu gaztelaniatik, hezkuntzako gauzak, pedagogiakoak... Beraz, parez pare beste mundu hori ere indartu genuen, eta hor jende mor-do batek parte hartu zuen. Hartu-emanak antolatu genituen orduan esperientzia zuten Bilboko batzuekin, Arrimadas izeneko batekin eta beste batzuekin; horiek ere mitikoak dira guretzat. Haiek horretan ibiltzen ziren egunero, eta gu, berriz, lehen aldiz hurbiltzen ginen, eta haiengandik ikasten genuen.

Horrek ekarri zuen ikastoletan-eta batzarrak eta bestelakoak euskaraz egin ahal izatea. Jende gehienak euskaraz bazekien tokietan, ezin zen euskaraz egin, gaztelaniaz bakarrik zekiten batzuk zeudelako, eta halako sistemak erabiltzera pasatu ginen. Beraz,

hori ere EIZIEk egin duen lanetako bat izan da, lan inportante bat.

Josu Zabaleta:

Nik uste dut bai Itzultzaile Eskolak, bai *Senenek* eta bai elkarteak premia bati erantzuten ziotela, eta hori oso argi genuen.

Beraz, itzultzeko premia bazegoen, elkartzeko premia bazegoen eta ikasteko premia bazegoen; nik uste dut egoera hartan sortu ziren beste talde batzuek ez zutela hainbeste-ko premiarik sorreran, ez ziotela erantzuten bazegoen premia bati, baizik eta etortzeko zeuden premiei. Hor oker ibiltzeko aukera dezente dago.

Lurdes Auzmendi:

Elkartea abian zegoela, ikusten genuen egonkortu behar zela eta pertsona bat behar genuela erantzungo ziona eguneroko lanari. Eta etorri zen Arantzazu Royo, zorionez. Nik beti esan dut bera dela, azken urteetan, Mila Garmendiaren laguntzarekin, elkartearen zutabe nagusia eta elkartearen kontrolatzen duena adar guztietatik. Ez dakit sekula eskertu diodan: aprobetxatu nahi nuke une hau eskertzeko egiten duen lana.

Josu Zabaleta:

Elkarteak hiru zutabe izan ditu, eta horiek gabe ez da entenditzen; azken batean, mirariak edo mirarigileak dira. Bata da Lurdes (beti egin izan ditu mirariak); gero etorri zen Arantzazu Royo (horiek dira mirarigile espezifikoak), eta gero etorri zen mirarigile generikoa, Mila Garmendia.

Karlos del Olmo:

Orain, beste ikuspegi bat: Miren Ibarluzeak elkartearen beste azterketa bat dakar, eta, horren osagarri, nazioartekoaz eta berak elkartearen inguruan izan dituen bizipenak azalduko ditu Bego Montoriok, elkartearen nola ikusi duen berak ere. Biek hainbat ardurak izan dituztelako eta, batez ere, irakas-kuntzan ere jardun dutelako eta zer edo zer badakitelako itzulpengintzak izan dituen gorabeheren ganean: masterrak, lizentziak, graduak, eta auskalo etorkizunean zer etorriko den.

Miren Ibarluzea:

Nik, batez ere, nahi nuke istorio hau guzti hau oinordekotzan jaso duen baten ikuspegia eman. Barkatuko didazue nitaz hitz egitea omenduak beste batzuk direnean, sortzaileak. Baina iruditzen zait ikuspuntu zubiaren bestaldetik ere eman behar dudala. Uste dut inportantea dela azpimarratzea: EIZIEk 30 urte ditu, eta hazi da itzulpen ikasketekin batera. EIZIE *translation studies* edo itzulpen ikasketen arloaren gurgpilean sartu zen sortzearekin bat. Esaten da euskal literaturan eta gauza askotan atzetik ibili garela; itzulpengintzan, ez: itzulpengintzan, sartu egin ginen gurgpilean, eta uste dut horrek berritasuna, garaikidetasuna eman diola elkarteari, eta baita arloari berari ere. Hau da, garaikideak izan zarete beti.

Idea bat egiteko, ni 1984an jaio nintzen, hau da, Martuteneko Eskolak jada hiru-lau urte martxan zeramatzan; 1987an, elkartearen sortu zenean hasiko nintzen ni lehen letrak idazten; gero jakingo nuen «maiuskulak»

esaten geniola haiei. Orduan, jolasten ginen andereñoetara, medikuetara. Orduan, umeak oraindik ez ziren jolasten itzultzaileetara; oraindik ere ez, uste dut.

2003an hasi nituen itzulpengintza ikasketak unibertsitatean. 2000. urtean ezarri ziren EHU; gero jakingo nuen EIZIEk ere arte eta parte izan zuela prozesu horretan guztian. Eta, gero, tokatu zait tesi lanean prozesu hori guztia ere ikertzea; hau da, pentsa!, oinordekotzan jaso dugu ikertzeko garai bat. Itzulpengintza ikasketak egin ditugunok ikertzeko sasoi bat ere jaso dugu, eta horretan ibili gara. Ba, ikuspegi horretatik hitz egin nahi dizuet gaur. 2017an aurkeztu dut tesia; hain zuzen ere, EIZIEk 30 urte bete dituenean, eta ez da zorizko gauza bat, ausazko kontu bat; soziologian esaten da gertakariak lotuta daudela, eta zuek ongi kontatu duzue gertakariak nola dauden lotuta hemen.

Euskal literatura itzuliaren eremu garaikidea aztertu dut, eta izendapenek ere badute garrantzia. *Euskal itzulpengintzaren erakundetze garaia* izena eman diot. Eta EIZIEk badu hor bere eginkizuna. Martuteneko Itzultzaile Eskolarekin eman diot hasiera (beste batzuek Urrezko Aroa esan diote aro horri), eta aro horrek aurrera jarraitu zuen EIZIE elkartearekin. Eremu bat dela diot gaur egungo itzulpengintzarena, eremu sozial bat. Zer da eremu bat? Gizarte espazio egituratu bat, eta egitura horiek dira erakundeak, egitura horiek dira eragileak, itzultzaileak, eta egitura horiek dira praktikak. Eta zer egiten dute eragile horiek, zer egiten dute erakunde horiek? Mundua ikusteko eredu propioak ematen dituzte. Eta erronka komunak hartzen dituzte, eta

bai, EIZIEk mundua ikusteko beste tresna batzuk eman dizkigu; eman dizkigu itzultzailearen profesioa ikusteko betaurrekoak.

Horri horrela deitzen zaio soziologian. Mundua ikusteko tresna bat izan da elkartea, eta horren abiarazlea izan da. Kasu honetan, itzulpengintzari buruzko ideiak eraldatzea lortzen du jardunak eta existitzeak berak, eta hori lortu du EIZIEk. Hainbat funtzio bete ditu; hitz egiten da gizarte eremuen funtzioez, eta EIZIEk bete ditu teoriak normalean gizarte eremu bati esleitzen dizkionak. Eremua berritu du, eta berritu duzue profesionalen eremua, eta kapitala gordetzea eta transmititzea ere bai, eta legitimazioa eta kontsakrazioa ere bai; hortxe egon da elkarte funtzio horiek betetzen. EIZIEk, eta sortzaileek, eta ondorengoek, eta kideek, itzultzaileen formazioa izan dute jomuga eta helburu, eta, horrela, itzultzaileen profesionalizazioa izan da helburu, eta eremuaren erreferentzia propioak sortzea ere bai; erreferentzia sortzeaz ari naizenean, teoria sortzeaz, historia sortzeaz, artikulua idazteaz, itzulpenak sortzeaz, datu baseak emateaz ari naiz, eta hori dena elkarteak egin du.

Eta, funtzio batzuk beste erakunde batzuei oinordekotzan utzi zaizkienean ere, EIZIE beti izan da bidelagun, txostengile, aurrekari lanak egin ditu... Bereziki, nire ikerketarako material berebizikoa izan da elkarteak egin duen erreferentzia horien guztien bilketa. Niri, *Senex* aldizkariko inkestak, zuen artikulua, ikasturteen eta ikastaroei buruzko gogoetak berebizikoak izan zaizkit, hain zuzen ere, historia garaikidea idazteko.

Ni neu fijatu naiz itzulpenaren eremua-
ren bilakaeran, errepresentazioaren bila-
kaeran, nola ikusten dugun itzulpengintza
eta nola aldatu den, eta, horretarako, fijatu
naiz literatur historietan nola aipatzen den
eta fikzioan nola agertzen den. Ideia bat
egin dezazuen, 1987an, EIZIE sortu zen
urtean, Juaristik bere literaturaren historia
idatzi zuen. Casenavek dio literatur historia
hori nahiko konparatibista dela aurrekoen
aldean. Esaten du, adibidez, Juaristik, Lei-
zarragaren itzulpenaren hizkuntza hautuak
nolakoak diren, baina ez da horretan baka-
rrik geratzen, konparatu egiten du. Esaten
du halako herrialdeetako hizkuntza hautuak
halakoak zirela; edo XIX. mendearen bu-
kaerako eta XX. mendearen hasierako itzul-
tzaile batzuen egoera periferikoa agerian jar-
tzen du, eta esaten du: «Hauen itzulpenak
ez ziren asko irakurri edo ez zuten harrera
handia izan, idazle periferikoak zirelako».
Horrelako gauzak jartzen ditu agerian, eta,
beste historiografia batzuetan bezalaxe,
itzulpenak idazleen biografiaren osagarri
agertzen dira.

Orduan, zerbait ari zen aldatzen jada,
1987an, aurreko historiografiaren aldean.
Aurreko historiografietan, beti aipatzen
ziren hizkuntza kontuak: «Harako horrek
itzulpen hau egin du, eta euskalki hau ba-
liatu du». Halakoak bakarrik komentatzen
ziren. Hemen, jada, zerbait aldatzen ari da:
EIZIE sortu da, eta itzulpengintzari buruz-
ko ikuspegi sistemikoago bat eta, nolabait,
soziologikoago bat ere ari da agertzen. Baina
itzultzailea nahiko ikusezina zen, oraindik,
1987an.

Joxe Austin Arrietak *Manu Militari* pu-
blikatu zuen urte horretan, 1987an, eta, lan

horretan, itzultzaileak dira narratzaileak,
baina, oraindik, fantasma moduko batzuk
dira; aingerutxoak –kopista esaten zaie–,
testuaren arduradunak, zinema zuzenda-
riak... Oraindik ez dira itzultzaile profesio-
nalak. Itzulpenak egiten dituzte Erdi Aro-
ko eskribauek, abadeek, polizia etxeetako
arduradunek, idazleek eta abarrek. Ordu-
tik, 1987tik aurrera, denbora ez da alferrik
joan, eta artean EIZIEkideek itzulpenaren
teoria itzuli dute, itzulpenari buruz berez-
ko gogoeta egin dute, itzulpenak... Zenbat
egingo zituzten! Elkartea eta profesionalen
eremua egituratu dituzte; harremanak egin
dituzte beste elkarte batzuekin, etorkizune-
rako plangintzak prestatu, bildumak sortu,
argialetxeak abiarazi, eta kolektibo bat sor-
tu dute. Hori dena zor diogu elkarteari.

Atzo goizeko literatur historia batean
–2012an, kasurako–, Mari Jose Olaziregik
editatutako hartan, itzulpenak bere kapi-
tuluia du, beste genero testual bat bailitzan.
Gauzak aldatu dira; zerbait, behintzat. Lite-
ratur historia horretan, modu sistematikoan
txertatzen dira euskaratik beste hizkuntza
batera egin diren itzulpenak; modu sistema-
tikoan aipatzen dira. Eta, literatur joeretan
aldaketak gertatu direnean, euskal litera-
turan komentatu egiten dute sasoi hartan
liburu horiek itzuli zirela, eta ez zen hori
baitezpada gertatu.

Orduan, itzulpenari buruz daukagun
ideia ere, 30 urte hauetan, aldatuz joan da;
besteak beste, elkarreak egindako lanari es-
ker, nik uste. Fikzioan ere aldatu dira kon-
tuak. 2012an, literatur historia hori argita-
ratu zen urtean, Saizarbitoriak *Martutene*
publikatu zuen, eta pertsonaia nagusietako
bat, Julia, itzultzaile profesionala da. Idazle

kontserbatzaile, obsesibo eta mesfidatiaren aldean, bere bikotekide idazle horren aldean, Julia itzultzailea, ordurako emakume praktikoa, lurtarra, egiten duen horretan sinesten duena, kultura arteko zubia eta euskal literaturari ahots berriak ekartzen dizkion pertsonaia da. Aldatu da zerbait *Manu Militari* hartatik honetara ere. Eta bai, Julia pertsonaia desleiala da, baina Martin pertsonaia ere desleiala da; berak onartu egiten du, ordea. Gaur egun, itzultzaileak desleialak gara, baina idazleak bezainbeste. 2012an, fikzioan ere hezur-haragizkoak dira itzultzaileak, eta hain hezur-haragizkoak ezen egiazkoen antz handiegia ere baduten. Pasartetxo bat irakurriko dizuet, *Martutene* eleberraren 446. orrialdetik:

—Maupassanten itzultzailea gizon bizarduna da, ahots sakonekoa, gizonetako euskaldun batzuen begirada samur eta malenkoniatsua daukana —bere azalpena gustatu egin zaio Juliari, oso praktikoa delako, zati konkretuek ematen dizkioten zailtasun zehatzez hitz egiten du, paragrafo bat proposatu du, eta ikasleen bertsioak konparatu eta eztabaidatu dira; arazoa une oro proposatutako testuaren arabera gai linguistikoetatik haratagoko edukiak eztabaidatzen direla, arazoa erlatiboa nolana ere, gauza interesgarriak esaten baitira gehienetan.

Pasarteko gizon bizardunari, interprete irakasle andreari, euskal itzulpengintzaren lehenbiziko historiaren idazleari, euren lana eskertzeko garaia da, gauza interesgarriak esan, egin eta idatzi dizkigutelako, eta, hain zuzen ere, hezur-haragizko elkarte bat ere

eman digutelako. Eta ez dut neuk irakurritako pasarte horretan bakarrik gelditu nahi; harago joan nahi nuke, zeren —eta hau ia zoriz gertatu zaidan gauza bat da, justu duela bi egun—, hain hezur-haragizkoa da elkarrean, ezen fikzioan ere horrelaxe sartu den. Anjel Lertxundik *Horma* eleberria plazaratu du 2017an, eta hango pertsonaia nagusia itzultzailea da. Ez hori bakarrik, elkarteko kide ere bada. Honela dio 86. eta 87. orrialdeetan:

LASTER ITZULI ZARA!, harritu zait Marta Itzultzaileen Elkartean izena ematetik bueltatu naizenean. Lanik emango dizute?

Piper eta hitz beste eginez erantzun diot:

Esnea falta da, neu joango naiz erosketak egitera.

Barkatu, ez zintudan molestatu nahi, esan dit Martak nire erreazioarekin harrituta eta eztabaida batean sartzeko gogorik ez duen baten ahots nekatuaz.

Ez diot erantzun. Zertarako?

Uste nuen Elkartean izena ematea tramite bat izango zela niretzat, eta halaxe izan da formalki, tramite hutsa, baina kalera irten bezain laster babestuago sentitu naiz: itzultzaile bakarti honek bakardadean lan isila egiten duten gainerako itzultzaileen konpainia izango du hemendik aurrera. *Kandidaneko* lagunartea daukat. Elkartea, berriz, ahalegin komunaren babes anonimo halako bat izango dut gaurtik. Horixe esaten dute, behintzat, antzeko elkarten-gatik. Txintxoia sentitzen naiz, Gobernu Kanpoko Erakunde batean izena eman banu baino solidarioagoa; etxera bueltan elkartasunik gabe ez gara ezer eta horrelakoak esaten nizkion nire baitako harrari. Elkartasunarekin ere ez gara beharbada as-

koz gehiago izango, baina izen ematearen tramiteak lasaitu egin nau, horixe egia: ez naiz bakarra, ez nago bakarrik.

Eskerrik asko, beraz, hain bakarrik ez sentiarazteagatik.

Bego Montorio:

Ni, Lurdesen ondoren, izenez behintzat, hurrengo emakumea naiz elkarteaz; ez dago eskubiderik, zeren beraren eta nire artean bost zenbaki baino ez dago, baina berak aurreko hilabete eta urtean ikaragarritzko lana egin zuen, eta nik, berriz, Basauritik esan nuen: «Bai, izena eman nahi dut eta apuntatu nazazue». Eta bost zenbaki besterik ez.

Eta zer da elkarte niretzat? Elkargunea. Guk itzultzaile jarduten genuen, eta beste kolektibo horren berri kasik ez genuen. Niretzako eta zuentzako askorentzat uste dut hori izan dela elkarte. Ezagutzeko, gainera, itzulpengintza ez zela bakarrik norberak egiten zuen hori bakarrik, pelikulak itzultzea ere bazela, aldibereko interpretazioa ere bazela, Administrazioa ere bazela, literatura ere bazela, zuzentzaileak ere bazeudela, eta, zorionez, horretarako elkargunea, horretarako bidea izan zen.

Niretzat, eta guztiontzat, uste dut, presakuntzarako bidea izan da EIZIE; momentuan momentuko beharrei erantzunez. Hasieran, Martuteneko Eskola zegoen; desagertu zen, eta ALAIE egon zen, Administrazio eta Lege Arloko Itzultzaile Eskola; masterrak egon ziren; tarte horretan, EIZIEk prestakuntza eman izan du, eta, gaur egun, badago gradua eta badaude graduondokoak, eta EIZIEk jarraitzen du pres-

takuntzarako bide bat eskaintzen, beti itzultzaileen ikuspegitik, langintzatik abiatuta. Hori ere eman digu 30 urtetan elkarteak.

Elkarte niretzat, itzultzaile belaunaldien arteko lotura. Zuzendaritza Batzordean, elkarte sortu eta geroago jaiotakoak ere badaude! Eta hori ez da beti erraza, eta uste dut elkarteak lortu duela transmisio hori modu naturalean egitea, eta nik ezagutu ditut neure aurrekoak, eta ezagutu ditut neure ondorengoak, eta badaukagu komunean asko, eta elkarri pasatzeko eta elkarrengandik ikasteko, eta uste dut elkarteak horretarako bidea eman duela.

Lanbidea: lanbideaz jabetzea eta gure lanbideak zer paper duen euskal jendartearen barruan, euskararen garapenean; batzuetan, ohartzeko zer zama genuen, ohartzeko zertan ari ginen: lanbide bat zela, eta zeregin, erresponzabilitate bat ere bagenuela.

Bidea eman du elkarteak urte hauetan guztietan gure jardunaz kolektiboki gogoeta egiteko, eta horretarako bide ugari egon dira: lan saioak, mintegiak, udako ikastaroak, *31 eskutik*, Langintza Xeheki... Zerrenda oso luzea izango genuke, eta uste dut gogoeta hori ezinbestekoa izan dela, eta izango dela aurrera egingo badugu gure jardunean, behar bezala. Niretzat, elkarte bidea izan da, baita ere, euskararen komunitateari eta euskal jendarteari ekarpen bat egiteko. Hemengo batzuk bakarka ere izan dira –eta izango lirakeke, elkarte izan ez balitz ere– ekarpen hori egiteko gauza, baina beste batzuk ez. Beste batzuek gure aletxoak elkartearen bidez jarri dugulako; horren birtartez lortu dugu ekarpen bat egitea, bestela ez ginelako gauza.

Eta hor daude *Senex*, Literatura Unibertsala, Urrezko Biblioteka, ItzuL, Nor da Nor, Literatura Unibertsalaren Corpusa...

EIZIE pertsonak dira. Lagunak, harreman pertsonalak egin ditugu; baina, horretaz aparte, oso jende eskuzabala izan dugu, jakin duena ez bakarrik gauzak egiten eurek egon diren bitartean, ezpada egiturak sortzen, eta bideak irekita uzten eurek joan ondoren besteek aurrera egin zezaten. Ezagutu dut beste toki batzuetan ere lan asko egin duen jendea, baina ez dira gauza izan iraurarazteko. Eurek zeuden bitartean egin zuten ekarpena, eta, alde egindakoan, amaitu da. Uste dut zuoi eta hemen dauden beste batzuei eskertzekoa dela eskuzabalasun hori. Lan egiteko, bideak urratzeko eta besteentzako bide horiek eginda uzteko.

Aldaketak egon dira –tangoak dio hogei urte ez direla ezer–, eta hemen gauden guztiok badakigu badirela. Gauza asko aldatu dira Etxague Jeneraleko bilera haietatik, edo Pello Zabaletak Batzar Nagusietan lehen interpretazio lanak egin zituenetik, edo EUDEL sortu zenean egin genituen lehen interpretazio haietatik; ez genuen pentsatuko ingelesetik euskarara normal itzul zitekeela. Gauzak aldatu dira. Edo Administrazioan; ni Basaurin hasi nintzen itzultzaile, eta, alkateari egin nahi ziotenean elkarrizketa Euskadi Irratian, esaten zuten: «Datorrela itzultzailea; esango diogu zer esan, eta berak kontatuko du». Denok dakigu hori zenbat aldatu den.

Eta aipatu nahi dut aldaketa bat oso nabarmena izan zena, fisikoki oso nabarmena. Irakurriko dut nortzuek osatu zenuten lehendabiziko elkartearen zuzendaritza batzordea: Juan Mari Lekuona, Xabier Men-

diguren, Josu Zabaleta eta Ramon Etxezarreta kargudunak; eta, horiez gain, Koldo Izagirre, Juan Mari Mendizabal, Juan Jose Zubimendi, Jon Unanue, Kaxildo Alkorta eta Antton Elozegi, bokal. Orain ikusiko duzue aldaketa. Gaur egungo zuzendaritza taldea: Idoia Gillenea, Amaia Apalauza, Garazi Ugalde, Amaia Dones, Leire Otxotorena, June Díaz, Uxoia Iñurrieta eta Iñigo Roque. Nik uste dut lehenengo zuzendaritza taldeak ez zuela ordezkatzeko orduko euskal itzulpengintza, baina gaurkoak ere ez.

Eta, gainera, kezka bat ere badut: lanbide feminizatuak lanbide pobretuak dira, eta nago euskal itzulpengintza ez ote den gehiegi feminizatzen ari; onerako, baina baita txarrerako ere. (Beraz, mutilok, mesedez, kontuz ibili: zuentzako ere pobretuko da, pobretzekotan!) Aldaketa hori hain da nabarmena...: 30 urtean den-denak gizonak izatetik gizon bakarra edukitzera... Horrekin adierazi nahi dudana da EIZIEk ere jakin duela gauza askotan garaietara egokitzen. Teknologia berriak aipatu dira lehen. EIZIEk jakin du garai berrietara egokitzen beharregatik, lanean ari garenok ditugun beharrei erantzuteko.

Eta bi gauzatxo, amaitzeko. Nor ez da pasatu zuzendaritzatik? Zuzendaritzatik pasatu gabe ere, proiekturen batean parte hartu duzue zuetariko askok, segurur. Hori da niri EIZIEtik gustatzen zaidan gauza bat: jendea ez da betikotzen zuzendaritzan. Denok ezagutu dugu elkartearen barrukoa, eta nik asko ikasi dut EIZIEn kudeaketaz. Eta nire iritzikoak ez diren lankideekin aurrera egiteko moduak bilatzeaz.

Aipatu duzue: gure elkartea ez da sindikatu bat, nahas-mahas bat baizik, baina kudea-

keta horretan denok saiatzeko aukera eman du. Hori da ezaugarrietako bat, eta bestea da zerbitzu publikorako bokazio bat: EIZIEren gauza gehienak ez dira bazkideentzat bakarrik, ez itzultzaileentzat bakarrik. Gure baliabide gehienak webgunean eskura daude, nahi duenak erabiltzeko; ItzuLen, edozein itzultzailek har dezake parte, ez da horretarako bazkide behar. Uste dut hori oso ona dela, horri heldu beharko geniokeela.

Nik ere ez dut amaitu nahi EIZIEko bulegariak aipatu gabe: Arantzazu Royo, Mila Garmendia eta Irene Florentino –urteetan aritu baitzen bulegoan–. Elkarrearen barruan egiten duten lan guztiaz aparte, gure bisita txartela dira elkartetik kanpo ere; nekez topatuko genuen hoberik. Eurek ere badakite zenbat maite ditudan; beraz, bada-kite egiatan nabilela.

Eta, amaitzeko: akatsak ere egin ditugu, bat baino gehiago. Eta hanka sartu dugu. Dena ez dugu ondo egin, baina, seguru nago jakingo duela elkarteak horretaz ohartzten eta okerrak zuzentzen... Denok dakigu egin ditugula, baina gaur ez da horretarako momentua.

Karlos del Olmo:

Laburpen moduko bat egitea dagokit orain. Baina gehiena esanda dago. Dena dela, nik behin baino gehiagotan idatzi dut elkarte eta aldizkaria bera egon ez balira, asmatu beharra legokeela gaur egun; horiek edo antzeko zer edo zer.

30 urte hauetan, gauza asko aldatu dira, eta nik ikusi dut etxean, semearengan. Gaurko gazteek, gaurko umeek, zuen seme-alabek, ilobek, bilobek dauzkaten hizkuntz beharrak

eta duela 30 urte zirenak, literaturan, filmetan-eta, ez dira berdinak, eta baliteke, laster, aitzindari izandakoek egindako lan horietako batzuk beharrezkoek ez izatea, hizkuntz gaitasunak-eta aldatu direlako. Gero eta hizkuntza gehiago menderatzen dituzte, edo behintzat hizkuntza nagusiak; jantziagoak ditugu belaunaldi berriak, baina elkarteak asmatu du gauza batean: beste hizkuntzetara eramaten euskal literatura, eta, beste alde batetik euskal itzultzaileak eta interpreteak hasi dira beste hizkuntza batzuk ikasten, eta euskararako ate eta leiho berriak zabaltzen.

Eta horretan ere ondo asmatu dugu. Lehen, ingelesa zen nagusi –nagusi da, oraindik–; ingelesetik beharbada gutxiago itzuli beharko dugu, eta gehiago beste kultura txikiagoetatik edo hizkuntza hain ondo ezagutzen ez ditugunetatik. Eta, gero –ni oso zientzia-fikzio zalea naiz–, behin baino gehiago pentsatu dut: «Eta, gaur, esnatuko bagina, eta EIZIErik ez balego, zer?». Ondo pentsatuz gero, euskal kulturagintza eta euskal gizartea bada gaur egun den bezalakoa, neurri batean, itzultzaileak, interpreteak eta elkarte bera hor egon direlako, zeren banaka egon izan bagina... Gu ez gara lobby bat, ez dugu inoiz horrela jokatu; ez gara sindikatu bat, ez gara mugimendu politiko bat, eta, gainera, gure harremanak ez dira, askotan, oso onak izan administrazioekin. Lehen, esate baterako, Gasteizera joaten ginenean, harro-harro egoten ziren Literatura Unibertsalarekin, bazutelako munduan zer erakutsia, eta, gaur egun, ematen du ez dela hala gertatzen, nahiz eta gure elkarteak, esaterako, euskararen normalizazioan egin duen lanak ez duen izan merezi duen aitor-tza. Hitzez jaso du inoiz edo behin, baina

iruditzen zait pisu handiagoa behar lukeela. Baina, neurri batean, nik askotan egiten diot galdera hori neure buruari, eta hor utziko nuke: «Zer izango litzateke bakoitzaren bizitza, bizimodua, elkarteak gabe?».

Badakit Administrazioan dihardugunok, alde, hutsune hori ez genukeela nabaritu lan baldintzen ikuspegitik, baina bai babes aldetik; lehen Begok eta besteek aipatu dutena: hor daukagu *eskolea*. Peru Abarkak eta «maisua Juan»ek zeukatenaren modukoa; guk badaukagu gure eskola birtuala, eta horrek laguntzen du batasun moduko bat lortzen, garai batean Elizak, abadeek besterik lortzen ez zutena. Eta uste dut erdi aipatu dugula, baina EIZIE sortu zen, hain zuzen ere, euskal kultura pulpitutik irteten hasi zenean, zentzurik onenean, edo batera gertatu da. Hau da, euskal kultura, euskal literatura, euskara bera gizarteratzen eta zibilago egiten lan handia egin du elkarteak.

Administrazioa aipatu dut, eta iruditzen zait elkarteak lan handia egin duela baina ez duela lortu Administrazioaren aurrean behar besteko indarririk. Ez dugu lortu euskal administrazioek itzultzaileen lan egoerak, eginkizunak, mailak, soldadak eta merezi dugun aitortza bateratzea. Baina, beste alde batetik, ez dugu lortu elkarte moduan, Administrazioa itzultzaile asko ez direlako gure bazkide. Jende asko dago elkartearen beharrik batera sentitu ez duena, eta iruditzen zait 30 urte pasatuta ere hor badugula jorratu beharreko alor bat; Idoia Gillenea lehendakariak Senezeko elkarrizketan aipatu dituen beste eginkizun mordo horretaz gain, etorkizunaren aurrean ditugun horietaz gain. Baina iruditzen zait aipatu beharra gurela elkarteak estaldura ere eskaini diela

Administrazioek, nahiz eta Administrazioan dabilten batzuek elkartearen beharrik ikusi ez.

Eta, orain bai, zerbait baduzue...

Josu Zabaleta:

Nik puntu bat jarri nahi nuke, ez dugulako aipatu. Ez da elkarteari dagokiona, baizik eta itzulpenari. Elkarteak sortu zen garairekin konparatuz, itzulpenak bete du batez ere aitortu ez zaion ikuspegi bat. Alegia, oso egoera diglosiko nabarmena zen, baina itzulpenaren bitartez gaintu da hori. Alegia, Euskal Herria ez zegoen isilik; euskal jendea ez zegoen isilik mila gairi buruz. Hitz egiten zuen, baina erdaraz egiten zuen. Administrazioak ere bai. Orduan, hori nola gaintu da? Nola gaintu da Administrazioaren egoera? Itzulpenaren bitartez. Komunikabideak? Itzulpenaren bitartez. Mila gauza gaintu dira itzulpenaren bitartez; eta itzulpenak eman ditu eta jarraitu behar du ematen oraindik indarrean diren diglosia egoerak eta halakoak gaintuzko irizpideak.

Joseba Erkizia (ikus-entzuleen artean):

Elkartearen izugarritzko balorea, ezaugarria, aniztasuna izan da. Alde askotatik: harremanak, belaunaldiak, ideologiak, pentsamoldeak, bizikidetzak. Arrakastaren zati bat izan da, behintzat, jakin dugula izaten garen bezalakoak, baina elkarrekin lan eginez. Ez da beti halakorik izan gure elkarte, erakunde edo abarretan. Harro egoteko modukoa.

Karlos del Olmo:

Hala da. Gomutan dut, esaterako, *Egunkaria* itxi zuten egunean elkartuta geundela

zuzendaritzakoak egoitzan, eta berria heldu zen, eta tentsio handiko egunak izan ziren, eta, hala ere, asmatu genuen, beste egoera batzuetan bezala: gure bazkide batzuk mehatxatuta egon ziren, beste baten bat kartzelan... Elkartasuna adierazi behar zen, ez zen adierazi behar... Presio izugarriak izan ziren kanpotik, elkarreak jarrera ofizialik adierazi behar zuen edo ez, eta, hala ere, krisialdiak krisialdi, aniztasun horrengatik lortu genuen egoera horietatik, zelan edo

halan, aurrera ateratzea; baten batek baja eman zuen, baina baja batek ekarri zituen beste bost bazkide... Oreka horretan ere, Josebak esan duen moduan, ondo asmatu genuen, beharbada kolore nabarmenik ere izan ez delako. Ez zen grisa ere; gehiago zen ostadarrarena, kolore bakoitza hor jarrita, dagokion tokian.

Bukatzeko, badugu sorpresatxo bat, Miren prestaturakoa.

Miren Ibarluzea (bertsotan):

Ez da hain aspaldiko
kontua lehena.
Zenbat istorio eder
bidean barrena.
Zuena gurea da,
gurea zuena:
joan-etorria da
itzulpenarena.

Atzera bota dugu
denok begirada:
luzea da oroitzapen
ta ekintzen ilara.
Eskertu gura baina,
ezinean gara...
Eman diguzuena,
itzulezina da.

Zubiak eraikita
iritsiz noranahi,
mundua aldatzeko
izan zarete gai.
Orain kopak altxatu,
egin dezagun jai!
EIZIEk merezi du,
ta zuek ere bai!

Resumen

El 30 de noviembre de 2017, la asociación EIZIE cumplió 30 años. Con motivo de la efeméride, se organizó un encuentro con el objeto de analizar la evolución que ha tenido la traducción al y desde el euskara. Al acto, que se celebró el 15 de diciembre en la Casa de la Cultura de Egia de Donostia-San Sebastián, acudió un nutrido grupo de socias, socios y simpatizantes de varias generaciones, y en el mismo se rindió homenaje a tres de las personas que fundaron la asociación: Lurdes Auzmendi, Xabier Mendiguren Bereziartu y Josu Zabaleta. Fueron ellas las que se encargaron de recordar los orígenes y la evolución de la asociación. Además, Miren Ibarluzea y Bego Montorio compartieron con el público su visión y recuerdos de la asociación. El director de esta revista, Karlos del Olmo, se encargó de dinamizar el acto.

Résumé

Le 30 novembre 2017 notre association a fêté 30 ans. Aussi, à l'occasion de cet anniversaire, a-t-elle organisé une rencontre, afin d'analyser l'évolution de la traduction à partir de l'euskara et vers cette langue. Le 15 décembre, de nombreux traducteurs (anciens et nouveaux) et sympathisants se sont réunis dans le Centre Culturel d'Egia, à Donostia, pour rendre hommage aux trois personnes fondatrices de l'association : Lurdes Auzmendi, Xabier Mendiguren Bereziartu et Josu Zabaleta. Elles ont été chargées de remémorer ses origines et son évolution. Par ailleurs, Miren Ibarluzea et Bego Montorio ont partagé avec les assistants leurs souvenirs et leur expérience au sein d'EIZIE. Le directeur de cette revue, Karlos del Olmo, a été chargé d'animer l'évènement.

Abstract

On November 30, 2017, the Association of Translators, Correctors and Interpreters of the Basque Language (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretteen Elkarte, EIZIE) celebrated its 30th anniversary. On this notable occasion, a meeting was held to analyze the development of translation from and into Basque. On December 15, a large number of translators together with friends both old and new gathered at the Egia Cultural Center in San Sebastian to pay homage to three of the people who founded the association, Lurdes Auzmendi, Xabier Mendiguren Bereziartu, and Josu Zabaleta, who reminisced about the origins and early times of EIZIE. Miren Ibarluzea and Bego Montorio also shared their memories of and experiences with the association. The director of this journal, Karlos del Olmo, hosted the event.